

**JARRAIBIDE ORRIA**

**EZ IDATZI EZER, MEGAFONIAZ AGINDUA EMAN ARTE**


- Utzi NANA mahai gainean, ondo ikusteko lekuan. Ariketak dirauen bitartean, hor egon behar du.
- Itzali eta gorde sakelako telefonoa. Ez da onartuko ordulari programagarririk, interneterako sarbidearekin edo antzekorik.
- Mahaiaren gainean, eman dizugun materiala, azterketan zehar banatzen dena, NANA eta boligrafoa besterik ezin duzu eduki.
- Probak dirauen bitartean isiltasun osoa egon behar da. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko zaio.

**PROBA: A ETA B ZATIAK**

1. Probak bi zati ditu, eta erantzun-orri bakarrean erantzungo dira.
2. Irakurgailu optikoarekin zuzenduko da; horregatik, **laukitxoak behar bezala markatu** behar dituzu, **espazioak osorik betez**, orrian bertan adierazten den bezala. Egokiro markatutako erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. Erantzunak **boligrafo urdinez edo beltzez** markatuko dira.
4. Galdera bakoitzak lau erantzun-aukera ditu, A, B, C eta D letrekin adieraziak. Galdera bakoitzeko erantzun bakarra da zuzena. Egiaztatu koadernotxoan dagokion zenbakiaren arabera erantzuten diozula galdera bakoitzari.



Adi! Okerrik egiten baduzu eta erantzun bat ezeztatu nahi baduzu, beheko lerroan (ANULAR/EZEZT) ezeztatu nahi duzun aukeraren laukia bete behar duzu, eta berriz markatu goiko lerroan zure ustez zuzena den aukera. Arreta jarri erantzun zuzena markatzean (ikus hurrengo adibidea).

Begiratu aurreko aukera nola baliogabetzen den eta beste erantzun bat nola jartzen den. C Aukera baliogabetu egiten dugu eta A Aukera hartzen dugu (begiratu arretaz adibidea).



Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileei.

5. Megafoniaz agindua ematen denean, bete itzazu erantzun-orriaren goiburuan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NANA**. Zure **NANA zenbaki eta markekin adierazi beharko duzu** (ikus hurrengo adibidea). Atzerriko dokumentuen kasuan, adierazi haien digituak bakarrik.



6. Koadernotxoa banatzen zaizunean, **adierazi** zein **azterketa-eredu** (A edo B) egokitu zaizun.

Azterketa eredia / Modelo de examen      A  B

7. Probako **A ZATIAK 45 galdera** ditu, 1etik 45era zenbatuta

**Azken bostak erreserbako galderak dira**, eta **lehenengo 40etako** bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, galdera guztiei erantzuten saiatu behar duzu.

8. Probako **B ZATIAK 24 edo 25 galderako bi aukera** ditu (**20 gehi erreserbako 4 edo 5**).

Bi aukeretako galderak 1etik 24ra edo 25era zenbatuta daude.

**Bi aukeretako bat hautatu beharko duzu eta aukera horri dagokion laukitxoa bete beharko duzu:**

Aukerak / Opciones					
1	2	3	4	5	6
<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

**Aukera-laukitxo bi edo gehiago betetzen badituzu 1. aukera hautatu duzula ulertuko da.** Aukera bat hautatzen baduzu eta, gero, beste aukera bat egin nahi baduzu, erantzun orri berri bat eskatu beharko duzu. Beraz, gomendatzen da aukera-laukitxoa ez betetzea hautapenez guztiz ziur egon arte.

9. **Zigorra:** oinarrietan ezarritakoaren arabera, erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren herena kenduko da. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.
10. Probak **120 puntuko** gehieneko balioa izango du. **A zatia 0 eta 80 puntu** artean baloratuko da, eta **B zatia, 0 eta 40 puntu** bitartean. **Proba osoan 60 puntu edo gehiago** lortzen ez dituzten pertsonak baztertu egingo dira.
11. Proba egiteko denbora megafoniaz iragarriko da.

**AZTERKETA AMAITUTAKOAN:** Erantzun-orriak bi ale ditu, bata zuria da eta bestea horia. Bi orriak banandu eta orri zuria bakarrik entregatu, hori kolorekoa zuk gorde.

**Denbora agortu baino lehenago ariketa bukatzen baduzu**, jaso eskua eta erantzun-orriaren ale zuria eta koadernotxoa entregatu. Momentu horretan aretotik kanpora atera zaitezke. **Koadernotxoa IVAPen web-orrian argitaratuko da.**

Azterketako **azkeneko 5 minutuetan zure lekuan egon beharko duzu**, denbora bukatu arte.

**Denbora bukatzen denean, zaintzaileari erantzun-orri zuria eman** eta zuretzat gorde erantzun-orri horia eta koadernotxoa.

**Bertaratze-ziurtagiria** eskatu baduzu, gogoratu **gunera sartzeko mahaian** jasotzea.

**EMAITZEN ARGITALPENA:** Ariketa bukatu ondoren erantzun zuzenen txantiloia eta galdera-sorta argitaratuko dira <https://www.euskadi.eus/empleo-publico/> helbide elektronikoan. Ariketaren behin-behineko emaitzak **otsailaren 8an argitaratuko dira webgune** berean eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Bilbon, Gasteizen eta Donostian dituen egoitzetako iragarki-oholetan.

**ERREKLAMAZIOAK:** Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira behin-behineko emaitzak argitaratu eta hamar egun balioduneko epean.